AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2200

AGINDUA, 2012ko maiatzaren 18koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, 2008ko enplegu publikoko eskaintza onartzen duen irailaren 23ko 161/2008 Dekretutik eratorritako hautaketa-prozesuan hautatutako izangaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Administrari Laguntzaileen kidegoko karrerako funtzionario izendatzeko dena.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko apirilaren 16ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoetan EPE 2008tik eratorritako hautaketa-prozesuak arautu behar dituzten oinarri orokorrak onartzen ditu.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko apirilaren 16ko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Administrari Laguntzaileen kidegoko karrerako funtzionario bezala sartzeko hautaketa-prozesurako deitzen du.

Hautaketa-prozesua amaituta eta agindu honen I. eranskinean agertzen diren hautatutako izangai guztiek eskatutako dokumentazioa ezarritako epe barruan aurkeztu eta gero, bidezkoa da hautatuak izan diren kidegoko karrerako funtzionario izendatzea.

Halaber, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 52.2 artikuluak ezarritakoaren arabera, funtzionario berriak, beraiek adierazi duten lehentasun-hurrenkeraren arabera eta behin betiko hautatu direnen zerrenda lortu duten hurrenkerari jarraituz, bete gabe dauden lanpostuei atxikiko zaizkie, atxikipen hori, ondorio guztiei begira, lanpostuak betetzeak gordeta duen bidez lorturikoa bezalakoa hartuko da.

Horregatik guztiagatik, eta karrerako funtzionario sartzeko hautaketa-prozesuetako oinarri orokorrak arautzen dituen 2010eko apirilaren 16ko Aginduaren hamaikagarren oinarriarekin bat, 2008. urteko enplegu publikoko eskaintzatik eratorrikoak direla eta, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 6.1.i) artikuluak emandako ahalmenez baliaturik, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2008ko enplegu publikoko eskaintza onartzen duen 2008ko irailaren 23ko 161/2008ko Dekretutik eratorritako hautaketa-prozesuan hautatutako izangaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izendatzea, agindu honen I. eranskinean zehazten den moduan.

Bigarrena.– Agindu honen eranskinean adierazten diren izendatutako izangaiek 2012ko maiatzaren 21ean jabetu beharko dira lanpostuaz.

Hirugarrena.– Ezarritako egunean eta ezinbesteko kausarik gabe jabetza hartzen ez duenak, deialditik eratorriko eskubide guztiak galduko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioaren izaera bereganatzeko.

Laugarrena.– Funtzionario berriak esleitutako lanpostuei behin betiko izaeraz atxikiko zaizkie eta, atxikipen hori, ondorio guztiei begira, lanpostuak betetzeak gordeta duen bidez lorturikoa bezalakoa hartuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, eta errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, eta, horretarako, errekurtsoa jartzeko epea bi hilekoa izango da Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 18a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

I. ERANSKINA

KARRERAKO FUNTZIONARIO IZENDATZEN DIREN IZANGAIEN ZERRENDA

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN KIDEGOA

NAN	IZEN-ABIZENAK		
16282357	Pérez de Arenaza	García	María Isabel
11915401	Urcelay	Salazar	Vicente
30677267	Unzurrunzaga	Muro	Nagore